

INFORMAZIO OHARRA

Adimen Artifiziala hizpide Gasteizen, goi-mailako adituen arteko solasean

Arantza Díaz de Ilarrazak eta Humberto Bustincek, Adimen Artifizialean erreferente eta adituak, publikoari zabalik egongo den hitzaldia emango dute.

Gasteiz, 2023ko azaroak 9. Datorren azaroaren 20ean, Gasteizko Ignacio Aldecoa Kultur Etxean, goizeko 11:00etan “**Adimen artifiziala gaur: arriskuak, erronkak eta aukerak**” aurkezpena izango da, Eusko Ikaskuntzak eta Jakiundek antolatuta. Saioan, adimena artifizialaren egungo erradiografia egingo da eta aztertuko da nola eragiten digun AAK gure eguneroko bizitzan eta zer onura atera diezaiokegun. Halaber, bere mugak ere ezagutzeko aukera izango da eta gizartearen hazkunde orekatu eta inklusiboa ahalbidetzeko aukerak ere.

Aurkezpenaren berezitasun handiena parte hartuko duten adituen aldetik etorriko da, ez baitira nolana hiko jakitunak. Bata, **Arantza Díaz de Ilarraza**, Euskal Herrian aitzindaria izan da Hizkuntzaren Prozesamenduaren eta Adimen Artifizialaren arloetan. Aitzindaria arlo horretan, eragin nabarmena izan du Euskal Herriko nahiz nazioarteko hainbat erakunderen eta ikerkuntza-sareren sorreran eta bilakaeran. IXA taldearen sortzaileetako bat izan zen 1988an eta HITZ ikerketa-zentroaren sortzaile eta lehen zuzendaria ere. 180 liburu-kapitulu argitaratu ditu, eta hainbat artikulu estatuko eta nazioarteko aldizkari eta biltzar zientifikoetan, besteak beste, adimen artifizialaren arloan.

Bestea, **Humberto Bustince**, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Konputazio Zientziako eta Adimen Artifizialeko katedraduna eta Nottinghameko Unibertsitateko ohorezko irakaslea da. Nafarroako Adimen Artifizialaren Ikerketa Zentroko zuzendari zientifikoa da, eta NUPeko Adimen Artifizialaren eta Arrazoitze Hurbilduaren Ikerketa Taldearen sortzailea eta arduraduna. 250 artikulu baino gehiago idatzi zituen, eta 2018an Clarivate Analytics taldearen sailkapenean sartu zen mundu mailan eragin handiena duten ikertzaileen %1en artean.

Lekua bermatze aldera, izena eman daiteke www.eusko-ikaskuntza.eus web orrian. Solasaldia gaztelaniaz izango da eta doakoa da.

NOTA INFORMATIVA

Hablamos sobre Inteligencia Artificial en Vitoria-Gasteiz, en un diálogo entre personas expertas de alto nivel

Arantza Díaz de Ilarraza y Humberto Bustince, referentes y experta y experto en Inteligencia Artificial, ofrecerán una conferencia abierta al público.

Vitoria-Gasteiz, 9 de noviembre de 2023. El próximo 20 de noviembre, a las 11:00 horas, en la Casa de Cultura Ignacio Aldecoa de Vitoria-Gasteiz, tendrá lugar la presentación “**La inteligencia artificial hoy: riesgos, retos y oportunidades**”, organizada por Eusko Ikaskuntza y Jakiunde. En la sesión se realizará una radiografía actual de la inteligencia artificial y se analizará cómo nos afecta la IA en nuestra vida cotidiana y qué beneficios podemos obtener. Asimismo, será una oportunidad para conocer sus limitaciones y para atender a las posibilidades que ofrece para un crecimiento equilibrado e inclusivo en la sociedad.

La mayor peculiaridad de la presentación recaerá en el nivel de las personas expertas que participarán, que a su vez son reconocidas por su faceta divulgadora. Por una parte, **Arantza Díaz de Ilarraza**, pionera en el País Vasco en el campo del Procesamiento del Lenguaje y la Inteligencia Artificial, ha influido notablemente en la creación y evolución de diversas instituciones y redes de investigación tanto vascas como internacionales. Fue una de los fundadoras del grupo IXA en 1988 y fundadora y primer directora del centro de investigación HITZ. Ha publicado 180 capítulos de libros y artículos en revistas y congresos científicos nacionales e internacionales, entre ellos en el ámbito de la inteligencia artificial.

Por otra, **Humberto Bustince**. Catedrático de Ciencia de la Computación e Inteligencia Artificial de la Universidad Pública de Navarra y profesor de honor de la Universidad de Nottingham. Es director científico del Centro de Investigación en Inteligencia Artificial de Navarra y fundador y responsable del Grupo de Investigación en Inteligencia Artificial y Razonamiento Aproximado de la UPNA. Ha escrito más de 250 artículos y en 2018 entró en la clasificación de Clarivate Analytics entre el 1% de los investigadores con mayor impacto a nivel mundial.

Quienes lo desee, pueden reservar su plaza en la web www.eusko-ikaskuntza.eus. La charla será en castellano y gratuita.